

## BAKALDUN AUREGUNA

Edufne ume polit eta bizkofa, saspi urteduna, ikastolara 7dua. Bere etxetik araño bide luzetxuba dago ta bide-egiten daun artian gauza askok beteten dautsoe gogua.

—Opofak ¿zegafik ixaten etedira udean, neguban ixan bialian? olan ba'litzaz orain etxian egongo nintzan sukaldian bero-berorik ikastolara juañ barik.

Zuzen eguañ ume gaxua, eguraldija txafa zan atatik ibilteko; ipaf axiak eta jausten zan edufak otzituden eben bere gorputza guztiz txafto estalduta.

—Baña udean ¿zein atsegingafija dan basotik ibiltia azke! txoritxubak lez, axe edefa aftzen zugatzen kerispetan, zelayetan lora-txoftak egiten, ikasketarik oldostu barik!

Onetara apuf-apufka ikastolara eldu zan geure umetxuba. Ikastolan berbarua da.

—¿Bai-dakixu bijaf Bakaldun'en eguna dala? esan eutsoen didafka.

Berak bai-ekijan, bijaramonian Bakaldun'en eguna zala, baña bai-ekijan be, egun atan otz andija eguala ta esaten eutsoeneri jaramonik egin barik berotzekuaren onduan jezafi zan. Bere lekutik entzuten eutsezan bere ikaskidieri:

—Neuk eskatuko dot zurezko zaldi bat, geure ugazabaren umiak daukona lakua.

—Neuk txifinguts bat.

Beste ume batek ezaban gura ofelakorik eta naikotzen zan oski (zapata) batzukaz.

Beste batek diru asko gura eban.

Edufne uferatu jaken eta ifandu eutsen:

—¿Nori eskatuko dautsozube guzti ori?

—Bakaldun'eri. Gau onetan etoften dira ume oneri sarijak emotera.

—¿Eskatzen dautsegun guztija emoten dabe?

—Bai ba. ¿Eztozu gomuta Goizpafan (evanjelijua) irakufthen dogula: Eskatu ta aftuko dozube?

Une atan irakaslarija saftu zan gelan, eta ifandu eutsen zer jazoten zan.

Guztijak batera, atzaldu (explicau) ta ifandu eutsoen.

—Bijaf Bakaldun'en eguna da ¿ezta?

—Bakaldunak geure oskijak gauza poliñez beteko dauskubez ¿ezta?

—Edo beste oski bafi batzuk emongo dauskubez.

—Goizpafan idatxiña dago: Eskatu ta aftuko dozube, ta bijaf goxian eukiko dogu, eskatu ixango dogun guztija ¿ezta?

Umetxu arek Bakaldun'en sarijen begira egozan eta ofegañik ain artega egozan, baña goiz-aldian euren oskijak utsik egongo ba'litxaz... ¡ixan leñekian!... Ganera, eurak iñoen Goizpaf-esakunak: «Eskatu ta aftuko dozube» beste ikufpen bat dauko, baña ¿euren ziñespena etzan gitxituko, oskijak utsik aufkitu ezkeru? Irakaslarijak ezekijan zer erantzun, keska andi bat eukon ¿zelan urten estualdi atatik? eta bururatzen jakon artian legoftu eban, bere bekokiya bustiten eban ixefdiya. Bederatzijak dira, ikasketea asi bial dau baña umien gogua ¿nundik nora dabil? amesetan, eta eztaukoe gogorik ikaskayak ikasteko; irakaslarijak arpegi iluna erakutsi bial dau.

—Jagoba ¿zetan zagoz? Zeure afabelan ¿zegañik egiten dozu zaldi-taijo ori?

Zetan eguan ezta biafa esatia; bere irudimenera etofi jakon berak gura eban zaldija ta antxe eguan adi-adi taijua egiten.

—Kepa, geldi egon, ¿zer daukozu ofetan? Berak uste eban txifinguts-ganian joyala.

—Edufne, orain ezta aldiya otoi-egiteko ¿zer dagixu of belau-niko?

—Jaungoikua'ri eskatzen dautsodaz soñeko ta esku-zofo batzuk emon dagistazala, eskubak bero-berorik eukiñeko.

Au entzunda irakaslarijak bafegiteko gogua euki eban, baña zuritu ta agin̄du eban:

—Danok belauniko.

Zarata andijaz belauniko jafi ziran danak.

—Orain gogoratu egixube zer egitera zuazen.

Bai dakixube Jaungoikua alde guztijetan dagola, baña batez be otoi-egiten dabenen onduan. Otoi-egitera zuaze. Jaungoikua'k zuben eskiak entzungo dauz, zuzenak ba dira.

—Ia Koldobika zeuk ¿zer gura dozu?

—Oski batzuk.

—Neuk gomutan daukot, Ufilan zeure amak erosi eutzuzala oski batzuk ¿nun daukozuz? Koldobika'k guztiz lotsatuta afoftu eutson ausi ebazala bere lagun baten bizkafan irain egin eutsolako.

—¿Gaxual ofek erakusten dausku asafeko¿ eta auskarija zarala ta bilduf naz bañiro be, gura dozuzan oskijakaz bardin egingo etedozun.

Onen onena ixango jatxu ona ixatia eskatu ta hijotz-bijotzetik eskatu ezkeru emongo dautzube.

—Eta ¿zeuk Jagoba?

—Neuk zurezko zaldi bat.

—Ta ¿zetarako?

—Bere ganian ibilteko.

—Jon zeure adiskidiagaz ¿eztozu eruaten efotarijaren zaldija ura edatera, ta etxerantza etzara etoften zaldiz?

—Bai, baña ezta bardin.

—Ondo diñozu, ezta bardin baña obe da, ¿Zurezko zaldi bat! ¿zetan zagoz ori eskatzeko? Jakixu, Jaungoikua'k irazandako zaldijak ezeztia dala ori, ta ondo eztagola; zeuk Edufne iguftzi zeure eskubak bata bestiagaz edo egixuz zeure nebatxubaren galtezidijak eta ezegixu uste Bakaldunak ekafiko dautzubezala esku-zofo batzuk eskubak gelditi ta berorik jaboteko. ¿Zeu alpefa zara gerol!

Bakotxari ifandu ta agiraka egin eutson. Buruba makuftu eben eta etziran azaftu eskatzen eurok ainbeste gura ebena.

Irakaslarijak jafaftu eban: Goizpafan irakuften dogu «Eskatu ta aftuko dozube» baña Josu-Kisto'k bai-ekijan lez ume ta gixonen

eskiak zuzenak ixango etzerala beti, ofegatik otoi-eredu bat emon euskun, auxe da: «Geure Afa Goikua» neugaz jesan gura dozube? Irakaslarijaren abotz motela ta umien zolijak nastau ziran otoa esaten; eta euren oskijetan Bakaldunak itxi ezpa-eben ez zaldirik ez esku-zoforik, irakaslari ta umien bijotzera Jaungoikua'ren eskafa jatzi zan, gixon gogo onduneri Jaungoikua'k eskiñiriko (bake) gentzeagaz.

**Erazi'tar Karmele.**